

EZKIO-ITSASO

Haur-antzerkia egongo da larunbata honetan Ezkio-Itsasoko liburutegian

MIRYAM GALILEA/

EZKIO-ITSASO. DV. Larunbata honetan arratsaldean, haur-antzerkia egongo da Ezkio-Itsasoko liburutegian, herriko adin guztietako bizilagunek arratsalde atsegingarria igaro dezaten.

Yartu Kultur Elkartekoek, Ezkio-Itsasoko Udalarekin batera eta Kutxa-ren laguntzarekin, Hitzak Patriketan izena duen antzerki dibertigarri eta pedagogiko hau antolatzea erabaki dute.

Honekin, 3 urtetik aurrerako ume eta gazteak, gurasoak, aiton-amonak... eta adin guztietako bizilagunak ekitaldi honetan batzea espero dute, aldi berean, herritar guztien oporrak modu atseginetan luzatuz. Hitzak Patriketan antzerkia arratsaldeko 5etan hasiko da Ezkio-Itsasoko Kultur Etxean kokatzen den liburutegian, eta 60 minutuko iraupena izango du.

Antzezleak Iñaki Beraetxe eta Aizpea Goenaga izango dira, eta seguru asko sekulako ikuskizun polita eta dibertigarria eskainiko du bikote honek. Horregatik, herritar guztiak gonbidatzen dituzte Hitzak Patriketan ikustera eta umore honez arratsalde polita pasatzera. Antzerkia amaitu bezain laster, antolatzaileek askaria banatuko dute bertan biltzen diren ikusle guztien artean.

Sinopsia

Barbara kakalardoak, Agustina oiloak eta Pepa txikiak bidai bat proposatzen diete ikusleei, izenen, zenbakien eta koloreen magia aurkitzeko. Antzezlan honetan hiru kontakizun pedagogiko aurkituko ditugu, irudimenez eta umorez beteak.